

“ILLUNBE ARENA” azterketen gabeziari buruzko KONTROL MOZIOA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko martxoaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko urrian Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen: *“Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Ilunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektua landu dezala kirol eta kultur eragileekin batera”*. Izan ere gaiarekin bat etorrita gero horri buruzko azalpenak emateko konpromisoetan sakondu du Udalbatzak.

2017ko urritik urtebete pasatu ondoren eta aipaturiko egitasmoari buruz berririk gabe gaia berriz 2018ko urriko Udalbatzarrean landu zen, honako beste erabaki hau hartuz: *“Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio Ilunbe espazioaren erabilpen askotarako gune izateko proiektua aurkezteko Kirol Patronatuko kontseilukideei, Donostia Kultura EEPko kontseilukideei eta egitasmoaren inguruan interesa agertu duten eragileei, guztien iritzia jaso ahal izateko egitasmo behin betikoa itxi aurretik”*.

Udal Gobernuak ez ditu arestian azaldu ditugun konpromisook bete. Eta aipatutako horiek ez betetzeaz gain pasa den hilabetean gobernuko kide batzuek hitzez hitz honako hau aurkeztu zuten: *“propuesta de pabellón multiusos en la zona de Anoeta”*. Argi da egitasmo hau zonalde berean dagoela, helburu antzekoak dituela eta, ondorioz, talkan legokeela hartutako konpromisoekin eta bete beharreko helburuekin. Honetaz interpelatzerakoan erantzun ere ez zuen egin zinegotzi delegatuak *“zer dela eta bitan udalbatzak hartu dituen konpromisoak bete ordez, erabaki horiekin talkan egon daitekeen egitasmo berri bati heldu nahi dio, zonalde berean, helburu bereko egitasmoa iragarritz?”* galdera.

Batzordean haxe da argi geratu zen 2017ko eta 2018ko urriko udalbatzarretan onartu ziren konpromisoei dagokienez: *“Ilunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektua”* aztergai egon arren ez dela azterketa bukatuko, proiekturik ez dagoela edo Gobernuak berak ez duela ezagutzen eta proiektuari dagozkion zehaztasunak baldin badira kaxoi batean geratuko direla. Bi hitzetan *sine die*. Horixe 4 urteetako laburpena.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017ko eta 2018ko urriko udalbatzarretan Udalbatzak eman zizkion mandatuak betetzeko, *Illunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektuari* dagokionez.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017ko eta 2018ko urriko udalbatzarretako aginduak oinarri, *Illunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektuari* dagokionez, aurkez diezaiela Kirol Patronatuko kontseilukideei, Donostia Kultura EEPko kontseilukideei eta egitasmoaren inguruan interesa agertu duten eragileei, orain arte egindakoa eta dagoen egoeran, oraindik azken ondorioak eduki ez arren.
- 3.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017ko eta 2018ko urriko udalbatzarretako aginduak oinarri, *Illunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektuari* dagokionez, azterketak bukatu arte ez dezala egitasmo berririk martxan jarri eta ez dezala diru publikoa gastatu kontrajarrian egon daitezkeen proiektuak bultzatzen.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia